



UNITATEA	KOMUNITATEA ETA GOBERNANTZA
XEDEA	2025 URTEKO UDAL PARTE HARTZE PROGRAMA ONARTZEA
ORDEZKARIA	
TITULARRA	

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Komunitatea eta Gobernantza saileko zinegotzi Josune Sanz Vidalena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako Udalak berriki 2025 urterako aurrekontua onartu duela eta aurrekontu honen baitan udal sail desberdinek 2025 urtean aurrera eman asmo dituzte egitasmo edota proiektuak jasotzen direla.

BIGARRENA.- Komunitate eta Gobernantza sailaren arduetako bat udal egitasmoen baitan, ahal den heinean, herritarren parte hartzea bermatzearena dela eta helburu horrekin udal sail desberdinei 2025urterako dituzten proiektuen identifikazioa eta proiektu hauen baitan burutu asmo diren partaidetza prozesuei buruzko informazioa ematea eskatu zaiela. Eta udal sailetatik jasotako informazioa kontuan hartuz, 2025 urterako partaidetza egitasmoen zerrenda landu duela Komunitate eta Gobernantza sailak:

- Tolosako jaietako foro iraunkorra osatzeko helburuarekin sustatuko den parte hartze prozesua (Kultura, Festak eta Gazteria saila).
- Emeterio Arrese ekipamendu komunitarioa: espazioaren kudeaketa, adineko elkarten eta gainerako eragile erabiltzaileen interes eta beharrei erantzun integrala emateko helburuarekin burutu asmo den Partaidetza prozesua (Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna saila eta Komunitatea eta Gobernantza saila).
- Auzoekin: Tolosako Landa auzoak, Izaskun – Bidebieta eta San Esteban eremuetan dauden auzoen egoeraren eta premien diagnostikoa egin nahi da, Eremuetako Plan bat modu parte-hartzailean formulatu eta garatu ahal izateko (Komunitatea eta Gobernantza saila).
- Zabalarreta Espazioa biziberritzeko helburu eta irizpideak definitzea (Hirigintza saila).
- San Esteba. HAPOaren aldaketa partziala dela eta, helburu irizpide orokorrak



finkatzea (Hirigintza saila).

- Alde Zazarreko plan integrala. Ekintza plana lantzea (Hirigintza saila).
- Etxebizitza komunitarioak. Etxebizitza eredu berriak sustatu eta garatzeko Partaidetza prozesua (Hirigintza saila eta Etxebizitza azpisaila).
- Larunbateroko ekoizle azoka biziberritzeko herritarrak, eragileak eta udala bilduko dituen erabakigune baten eraketa eta estrategien definizioa (Merkataritza, Azokak eta Turismoa azpisaila).

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- 2/2016 Legeak, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, bere 67.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, herritar orok du politika publikoetan parte hartzeko eskubidea. Hartarako, erakundeek eskubide hori bermatu beharra dute eta baliabideak jarri behar dituzte hura gauzatze aldera.

BIGARRENA.- 2/2016 Legeak, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, bere 72. artikuluan xedatutakoaren arabera, toki-erakundeek programa bat onetsi beharra dute urtero, non jasoko baita urte horretan zer-aktuzio gauzatu asmo duten herritarrek kontu publikoetan parte hartzea errazteko eta, adieraziko baita hartarako zer baliabide esleitu nahi diren, beharrezko izanez gero, aurrekontu-ekitaldi horretan.

Edonola ere, azpimarratu beharra dago urteko programa onartzeak ez duela oztopatzen beste aktuzio batzuk ere abiarazi ahal izango direnik, egoki iritzi gero, nahiz eta aurretiaz jasota ez egon urteko programan.

Aipatutako guztia aintzat hartuta, zinegotzi delegatu honek honako hau

EBAZTEN DU

LEHENA.- 2025 urteko partaidetza programa onartzea:

- Tolosako jaietako foro iraunkorra osatzeko helburuarekin sustatuko den parte hartze prozesua (Kultura, Festak eta Gazteria saila).
- Emeterio Arrese ekipamendu komunitarioa: espazioaren kudeaketa, adineko elkarteetan eta gainerako eragile erabiltzaileen interes eta beharrei erantzun integrala emateko helburuarekin burutu asmo den Partaidetza prozesua (Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna saila eta Komunitatea eta Gobernantza saila).
- Auzoekin: Tolosako Landa auzoak, Izaskun – Bidebieta eta San Esteban eremuetan dauden auzoen egoeraren eta premien diagnostikoa egin nahi da, Eremuetako Plan bat modu parte-hartzailean formulatu eta garatu ahal izateko (Komunitatea eta Gobernantza saila).



- Zabalarreta Espazioa biziberritzeko helburu eta irizpideak definitzea (Hirigintza saila).
- San Esteba. HAPOaren aldaketa partziala dela eta, helburu irizpide orokorrak finkatzea (Hirigintza saila).
- Alde Zazarreko plan integrala. Ekintza plana lantzea (Hirigintza saila).
- Etxebizitza komunitarioak. Etxebizitza eredu berriak sustatu eta garatzeko Partaidetza prozesua (Hirigintza saila eta Etxebizitza azpisaila).
- Larunbateroko ekoizle azoka biziberritzeko herritarrak, eragileak eta udala bilduko dituen erabakigune baten eraketa eta estrategien definizioa (Merkataritza, Azokak eta Turismoa azpisaila).

BIGARRENA.- 2/2016 Legeak, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak bere 52. artikuluan xedatutakoa betez 2025 urteko partaidetza programa Tolosako Udalaren gardentasun atarian /Iragarki atalean publikatzea.

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatezaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berriazko ebazpenik ez badago, prozedurari amaiera emateko nahiz berraztertze-errekurtsioari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake, edozein unetan. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.



TOLOSAKO
UDALA

«2025OZZZ0004»

ZINEGOTZI DELEGATUA

UDAL IDAZKARIA

Josuna Sanz Vidal

Francisco Javier Araniguria Rodrigo



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025OZZZ0004-parte hartze programa onartzeko dekretua/Decreto aprobación